

## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA LEHENESTU BEHAR DU HEZKUNTZA-ESKAINNTZA ETA ONARPENARI BURUZKO DEKRETU BERRIAK

Joan den urtarrilean positibotzat jo genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, zeinak otsailaren 28ko 30/2023 Dekretua (antolamendu- eta plangintza-irizpideak ezartzen dituen Dekretua aldatzen duena) erabat deuseztat jotzen zuen. Honekin batera, **Euskal Eskola Publikoari lehentasuna emango dion dekretu berri bat egitea eskatzen genion Hezkuntza sailari.**

Martxan da dekretu berria egiteko prozesua, eta EHIGEk ekarpen hauek egin dizkio joan den ostiralean amaitu zen aurretiazko kontsultaren eztabaida-faseari.

### HEZKUNTZA-PLANGINTZA

Gaur egun, eskola-plazen eskaintza ikastetxe bakoitzaren eskaeren arabera da erabat. Hori eskola-plangintzaren logikaren aurka doa.

Dekretu berrian, Hezkuntza Sailak **irizpide objektibo zehatzak ezarri beharko lituzke eragin-eremu bakoitzeko eskola-plazen eskaintza zehazteko.**

Gainera, **hezkuntza-plangintzak publikoa izan behar du.** Administrazioak ofizialki iragarri eta ezagutarazi behar du onarpen-prozesua hasi aurretik, baina gaur egun ez da horrelakorik gertatzen.

### GAIN ESKAINNTZA

Hezkuntza-plangintza txar batek, non administrazio publikoak ez duen egokitzen plazen eskaintza benetako eskolatzeko-beharretara, gain eskaintza sortzen du. **Gain eskaintza eskola-segregazioaren arrazoi nagusietako bat da eta baliabide publikoen esleipen eraginkorrari eta gizarte-kohesioari eragiten die.**

Egoera horri aurre egiteko, Hezkuntza Sailak honako neurri hauek hartu beharko lituzke:

- Argi eta garbi definitu benetako eskolatzeko-beharrak.
- Datuetan oinarritutako planifikazioa egin.
- Euskal Eskola Publikoa indartu eta lehenetsi, hezkuntzarako sarbide unibertsala bermatzen duen oinarritzko erreferente gisa.
- Behar demografikoei egokitutako eskola-mapa diseinatu, non Euskal Eskola Publikoak hezkuntzarako eskubide unibertsalaren bermatzailea izango den, jatorria, generoa, egoera sozioekonomikoa eta kulturala, erlijio-sinesmenak edo beste edozein inguruabar bereizi gabe.

- Ikastetxe batzuek beste eragin-eremu batzuetatik matrikula erakartzeko duten ahalmenari mugak jarri.

## ESKOLA-PLAZA PUBLIKOAK BERMATZEA

Oinarrizko araudiak ezartzen duen bezala, dekretu berriak plaza publikoen eskaintza nahikoa egin behar du, eta plaza publiko nahikoak egongo direla bermatu behar du, batez ere biztanle berriak dauden eremuetan.

## IKASLE ZAURGARRIEN ESKOLARATZE OREKATUA

Gure hezkuntza-sistema benetan inklusiboa izateko eta ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo jatorriagatik ez bereizteko moduan antolatzeko, Hezkuntza Sailak irizpide objektiboak erabili beharko lituzke zaurgarritasun-indizea ezartzeko. Horrekin batera, araua behar bezala betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta ikasturtean zehar desoreka-egoerak detektatzeko mekanismo espezifikoak.

## EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOA

Dekretu berriak bereizketa argia egin behar du ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen artean.

Hezkuntzako Euskal Zerbitzu Publikoa organo gisa ulertzen bada, baliogabetutako 30/2023 Dekretuak egiten zuen bezala, legez kanpokoa izango litzateke, ez bailuke legezko tokirik izango. Legea argia da: ikastetxe pribatuek hezkuntza-itunen bidez ematen dute hezkuntzaren zerbitzua, eta ez dago besterik. Ikastetxe publikoak eta zentro pribatuak parekatzea ezinezkoa da, besteak beste, administrazio publikoak ez duelako eskumenik zuzenbide pribatuak arautzen dituen enpresak zuzentzeko edo horietan esku hartzeko.

## HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA

Eskola-komunitateak hezkuntza-plangintzan parte hartzea eta gardentasuna funtsezkoak dira.

Dekretu berriak, nahitaez, Eskola Maparen Jarraipenerako Lurralde Batzordeak jaso behar ditu, 2009ko plangintza-dekretuan jasotzen ziren funtzio berberekin, bai eta Ikasleen Gurasoen Elkarteetako ordezkarien parte-hartze eraginkorraren bermea ere.

## EL NUEVO DECRETO DE ADMISIÓN Y PLANIFICACIÓN DEBE PRIORIZAR LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

El pasado mes de enero valorábamos positivamente el fallo del TSJPV por el que declaraba nulo de pleno derecho el Decreto 30/2023, de 28 de febrero, de modificación del Decreto por el que se establecen los criterios de ordenación y planificación, y **exigimos al Departamento de Educación que elaborara un nuevo decreto de planificación que priorice la Escuela Pública Vasca.**

Ya está en marcha el proceso de elaboración del nuevo decreto y EHIGE ha hecho las siguientes aportaciones a la fase de debate de la consulta previa que finalizaba el pasado viernes.

### PLANIFICACIÓN EDUCATIVA

Actualmente, la oferta de plazas escolares depende absolutamente de la demanda de solicitudes de cada centro. Esto va en contra de la propia lógica de la planificación escolar.

En el nuevo Decreto el Departamento de Educación debería **establecer criterios objetivos concretos para definir la oferta de plazas escolar de cada área de influencia.**

Además, **la planificación educativa deber ser pública.** La administración debe publicitarla y dar a conocer oficialmente antes de que se inicie el proceso de admisión, cosa que no ocurre hoy en día.

### SOBREFERTA

Una mala planificación educativa, en la que la administración pública no ajusta la oferta de plazas a las necesidades reales de escolarización, genera sobreoferta. **La sobreoferta es una de las principales causas de la segregación escolar y es un problema que afecta tanto a una eficiente asignación de los recursos públicos como a la cohesión social.**

Para abordar esta situación, el Departamento de Educación deberían tomar las siguientes medidas:

- Definir claramente las necesidades reales de escolarización.
- Hacer una planificación basada en datos.
- Reforzar y priorizar a la Escuela Pública Vasca, como referente básico que garantiza el acceso universal a la educación.
- Diseñar un mapa escolar adaptado a las necesidades demográficas, donde la Escuela Pública Vasca sea la garante del ejercicio del derecho universal a la educación sin distinción de origen, género, situación socioeconómica y cultural, creencias religiosas o cualquier otra circunstancia.

- Establecer límites al potencial de algunos centros para atraer matrícula de otras áreas de influencia.

## GARANTÍA DE PLAZAS PÚBLICAS

Tal y como establece la normativa básica, el nuevo Decreto debe hacer una oferta suficiente de plazas públicas y garantizar la existencia de plazas públicas suficientes, especialmente en las zonas de nueva población.

## ESCOLARIZACIÓN EQUILIBRADA DEL ALUMNADO VULNERABLE

Para ordenar nuestro sistema educativo de modo que sea realmente inclusivo y no segregue al alumnado por razones socioeconómicas o de origen, el Departamento de Educación debería utilizar criterios objetivos para establecer el índice de vulnerabilidad, así como mecanismos de verificación para analizar el correcto cumplimiento de la norma y mecanismos específicos para detectar situaciones de desequilibrio durante el curso.

## SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EDUCACIÓN

El nuevo decreto de planificación y admisión debe establecer una distinción clara entre centros públicos y centros privados concertados.

Si el Servicio Público Vasco de Educación se concibe como un órgano, tal y como hacía el Decreto 30/2023 anulado, estaría incurriendo en una ilegalidad, puesto que no tendría encaje legal alguno. La ley es clara: los centros privados prestan el servicio de la educación a través de los concertados educativos, y no hay más. La equiparación de centros públicos y centros privados no es posible, entre otras cosas porque la administración pública no tiene competencia para dirigir o intervenir en empresas que se rigen por el derecho privado.

## PARTICIPACIÓN DE LA COMUNIDAD EDUCATIVA

La participación de la comunidad escolar en la planificación educativa y la transparencia son fundamentales.

El nuevo debe incluir, necesariamente, tanto las Comisiones Territoriales de Seguimiento del Mapa Escolar con las mismas funciones que se incluían en el decreto de planificación de 2009, como la garantía de participación efectiva de los representantes de las Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos y Alumnas.